

## **Amarika aretoan "Beraiek geu" erakusketa dago ikusgai, Rocío Bueno komisarioaren eskutik**

*Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak eta Arabako Argazkigintza Elkarteak antolatuta, otsailaren 2ra arte egongo da.*

Helburua da artean erreferente diren emakumeak berreskuratzea eta aldarrikatzea, gidari eta inspirazio iturri izan daitezen, eta, gainera, egungo emakume argazkilarien lana ikusaraztea

**Gasteiz, 2024ko azaroaren 29a.** Amarika aretoak "Beraiek geu" erakusketa aurkezten du. Erakusketa otsailaren 2ra arte egongo da ikusgai, Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak eta Arabako Argazkigintza Elkarteak antolatuta.

Prentsaurrekoan aurkeztu dute Ana del Val Kultura eta Kirol Saileko diputatuak, Rocío Bueno erakusketaren komisarioak eta Silvia Díez Menéndez eta Ana García Hermoso Arabako Argazkilaritza Elkarteak kideak.

Erakusketak gorazarre edo omenalditik haratago doan irudiaren bidezko elkarrizketa proposatzen du. Erakusketa 2020an sortutako ikerketa eta sorkuntza artistikoko proiektu baten parte da. Bertan emakume argazkilari garaikideek beste esanahi bat ematen diete, argazki elkarrizketa hurbil baten bidez, hainbat ikusizko artetan emakume sortzaile historikoen lanari eta figurari, erreferente femeninoen genealogia bat sortzeko helburuarekin.

Erakusketa honetan, 13 euskal argazkilari garaikidek hitz egiten dute Euskal Herriarekin lotutako 13 artista historikoren lanarekin. Artista horiek aitzindariak izan dira beren eremuan, baina ez dira oso ezagunak oro har.

Aretoan, argazkilari garaikide / erreferentziako artisten bikote bakoitzaren 25 erretratu konbinatu daude ikusgai, erakusketaren zein proiektu globalaren parte direnak. Emaitza irudi hibridoek multzo bat da, sortzaileen arteko zubi lana egiten duena, iragana eta oraina lotuz.

Elkarrizketa horiek indartzeko, Rocío Buenok argazkilari garaikide / erreferentziako artista bikote bakoitzari egindako erretratu konbinatuekin osatzen da lana. Bi sortzaileen arteko zubi lanak egiten dituzten irudi hibridoak sortzen dira, iragana eta oraina lotuz.

Proiektuaren eta erakusketaren helburua da artean erreferente diren emakumeak berreskuratzea eta aldarrikatzea, haien bizitzak eta lanek gu gidatzeko eta inspiratzeko. Bestalde, egungo emakume argazkilarien lana ikusarazi eta balioetsi nahi da.

Euskal emakumeek edo Euskal Herriko panorama artistikoarekin harreman estua izan duten emakumeek sortutako ikusizko arte garaikidean jartzen du arreta proiektuak, eta Isabel Mellén arte historialariaren testu kritiko bat du, lana testuinguruan jartzen duena.

Argazkilari parte hartzaileak:

- Ana G. Hermosok Ángeles Marco interpretatu du
- Marta C. Dehesak Amallia Avia interpretatu du
- Ana Padrók Elena Asins interpretatu du
- Maria José Zamorak Menchu Gal interpretatu du
- Ainhoa Izak Pilar Albajar interpretatu du
- Mary Zurbano Gaunak Juncal Ballestín interpretatu du
- Belén Uruxturtuk Malús Arbide interpretatu du
- Rakel Riverak Maria Paz Jiménez Escudero interpretatu du
- Nati Ramírezek Mari Puri Herrero interpretatu du
- Silvia Díez Menéndezek Esther Ferrer interpretatu du
- Elena Mediavillak Isabel Azkárate interpretatu du
- Tania Barrenetxeak Josune Amunarriz interpretatu du
- Lorea Morlesínek Eulalia Abaitua interpretatu du

Erakusketaren diseinua: Rocío Bueno eta Elisa Miralles

### **Rocío Bueno proiektuaren sortzailearen CVa**

Ikusizko sortzailea, ekonomialaria eta Argazkigintzako eta Proiektuen Kudeaketako Nazioarteko Masterra. Gaur egun, Artearen Historiako 3. kurtsoa egiten ari naiz UHUNen.

"Argazkia komunikazio tresna gisa erabiltzen dut, elkarrizketa irekiak ezartzeko. Irudiaren natura anakroniko eta polisemikoak liluratzen nau, eta argazkigintza besteekiko harreman sistema gisa ulertzen dut. Hibridazioa eta argazkigintza zabaltzea interesatzen zait, beste ikusizko arte batzuekin harremanetan jarriz, hala nola marrazkiarekin, eskulturarekin, pinturarekin, collagearekin edo poesiarekin. Nire lanean, irudiei galderak egiten dizkiet, haien azalera eta markoaren mugak zeharkatzeko eta erakusten ez dena, ezkutuan dagoena, azaleratzeko. Emakume gisa ditudan genero prozesuekin lotutako gaiak jorratzen ditut: amatasuna, beldurrak, amorrak, loturak, herentzia, erreferenteak eta memoria" adierazi du.

### **Arabako Argazkilaritza Elkarteari buruz**

Arabako Argazkilaritza Elkarte irabazteko xederik gabeko entitatea da, eta argazkigintzaren dibulgazioa eta ikaskuntza ditu helburu nagusi.

1993an sortu zen, desagertutako Arabako Foru Aldundiko Kultura Kontseilu zaharraren Argazkilaritza Atalaren alternatiba gisa. Harrezkero, etengabeko bilakaera izan du bazkideen ahaleginari eta ilusioari esker, bai eta laguntza moral eta ekonomikoari esker ere. Laguntza hori hainbat erakundetatik jaso dute, bereziki Arabako Foru Aldunditik, Gasteizko Udaletik eta Vital Kutxa Fundaziotik.

Oro har, artearekiko eta, bereziki, argazkigintzarekiko duten interesari dagokionez, tokiko argazkilaritza ehuna osatzen duten espazioekin harreman zuzena eta arina izatearen alde egiten dute, hain zuzen: EAO, Amarika Aretoa, Artium Museoa eta Montehermoso Kulturunea, besteak beste.